

PROIEKTUAREN DATUAK:

Basoaren gaueko oihartzunaren ulua: urubia

Hegaztiak: gaueko harrapakariak

DBH 1

Euskaraz

PROIEKTUAREN TXOSTENA:

Sarrera

Zaraitzuko ibarra Nafarroako Ipar ekialdean kokatzen da Piriniotako lurraldean. Biztanle gutxiko lurraldea da, baina natur ingurune ikaragarria du. Otsagiko eskolako ikasleak naturan murgilduta egotera ohituta daude, eta bertan dauden izaki bizidunak askotan ikusten dituzte, baina haien inguruko informazio gutxi izaten dute.

DBH 1-eko kurrikulumean animalia ornodunak agertzen dira eduki gisa. Hortaz gain metodologia zientifikoa eta proiektuak ere lantzeko eskatzen du DBHko hezkuntza legeak.

Aurreko datu guzti horiek bilduta sortu da gaueko hegazti harrapari honen ikerketa, ikusi ez baina gauero beraien herrian entzuten dutelako.

Helburuak

- Gaueko hegazti harrapakarien ezaugarriak ezagutu
- Zientzia nola eraikitzen den aztertu metodologia zientifikoa erabilia
- Urubiak gizartearentzat dituen onurak komunikatu

Hezkuntza metodologia

Eskolaren ildo pedagogiko berrian POiak (Proiektuan Oinarritutako Ikasketak) edo PBLak erabiltzen ditugu ikaskuntza prozesuan. Zientzia arloko ikasgaietan metodologia zientifikoa gidari erabiltzen dugu (ikasleak zientzia, zentzia eginez ikasten dute) eta bildutako datuak beraien lurraldean zein erabilera izan dezakeen hausnartzen dute. Bukaeran orokorrean komunitateari, ikaskideei, herriari, Pirinotako zenbait erakundeei (Mendixut aldizkaria barne) ... aurkeztu behar diete (txostenak, berriak edo aurkezpen gisa) egindako lana.

Ikerketa honen POia gehitzen dugu (1. Erankina)

Ikerketa proiektua

Abiapuntua

Piriniotako basoetan urubia oso ugaria da eta Pirinioko elizak erabiltzen dituzte askotan kabiak jartzeko, hontza zuriaren lekua hartuz. Bestetik Otsagabiko Eskola **PiriMOOC** proiektuan sartuta dago. Piriniotako eskolen gune birtual bat, non beraien giza- eta kultura- errealitatea, hala nola, ingurunea eta ondarearen inguruko informazioa topatu eta sortu dezaketen. Tresna honen bitartez Piriniotako ezagutza bultzatu daiteke bere dibertsitate eta berezitasunean.

Horrekin lotuta **Nafarroako Hezkuntza Departamentuan** ondare naturalarekin lotutako **berrikuntza proiektu** batean aurkeztu eta onartu ziguten.

Azkenik, Eskola **Skolae hezkidetza proiektuaren** barruan dago eta "**emakumea eta zientzia**" dugu helburuetako bat. Kasualitatez Piriniotan, gaueko harrapakariekin ikerketa lanetan emakume zientzialari bat genuen, Erronkariarra, Alba Izaskun Ripodas Melero (biologoa) eta planteatu genion.

Ikerketaren zehaztasunak

Ikerketa, gaueko hegaztiekin, neguan, egiten den herritar zientziaren jarraipen proiektu bat dago NOCTUA deiturikoa. Hori erabili dugu datuak biltzeko. Gure kasuan hiru estazio aukeratu genituen Otsagabiko herrian eta laginketa bakarra egin dugu, Abenduak 1- Otsailak 15 garai tartean.

Ikerketa nola bideratu den, zein datuak bildu diren eta zein ondorio lortu ditugun azaltzeko ikasleen txosten zientifikoa gehitzen dugu jarraian eta horrekin lotutako bideoa.


URUBIA AZTERTZEN, TXOSTEN ZIENTIFIKOA

Helburua: Biologia ikasgaiari ornodunak aztertzen ari ginen eta bertako gaueko harrapakaria denez, Urubia hautatu genuen.

Kokapena: Hiru estazioetan egon ginen:

- Sarria mendian egon ginen
- Elizako goi partera joan ginen

- Elizako atzeko partera joan ginen.



Materiala eta metodoa:

Eskuargiak, Urubiaren soinua, fitxategia, bozgorailua, frontalak eta idazteko zerbit.

Estazioan, entzun behar genuen lekura ailegatzin ginenean, 5 minutuko entzunaldi bat egiten genuen taldeka. Gero deialdi bat egiten genion, Urubi hotsa sortuz bozgorailu batekin. Ondoren, beste 5 minutuko entzunaldia egiten genuen

Datuak:

1.Estazioa:

-Sarria mendian

Pinua- %40 gorako estaldura KODEA 03

2.Estazioa:

-Elizako goi partean

Pagadia-%40 gorako estaldura KODEA 05

3.Estazioa:


- Elizako atzeko partean

Pagadi-%40 gorako estaldura KODEA 05

	1.ESTAZIOA	2.ESTAZIOA	3.ESTAZIOA
OTSAILA Entzun	0	1	2
OTSAILA Ikusi	0	0	1

TAULA 1. Bildutako datuen taula

Urubia aztertzen



GRAFIKOA 1. Bildutako datuen grafikoa

Lehenengo estazioan ez genuen ezer ikusi eta entzun. Bigarreanean, bat entzun genuen, eta hirugarreanean, bi entzun genituen eta bat ikusi genuen.

Ondorioak:

Ondorioztatu duguna:

- Hirugarren estazioko soinuak, txito baten eta aita/ama baten soinuak zirela. Eliza dorrean kabia zutela pentsatzen dugu.
- Uste dugu, bigarren estazioan entzun genuen urubia, hirugarrenaren berdina zela.
- Lehenengo estazioan ez genuen ezer entzun, soinu asko zegoelako eta ekosistema ezberdina zelako, pagadiak aldatu direlako.